

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2017ko LEHENENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak
Etiketetan adierazi gabeko alergenak


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2017ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 925 jakinarazpen izan dira. Horietatik 252 alertak izan dira (%27,5), 205 informazio-jakinaraizenak (%22) eta 468 mugan egin diren ukapenak (%50,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **25a Turkiakoak** dira eta jarraian **Txina** dugu: kasuen % **23a**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Espainia** izan da, % **15,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**27,5** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil** da jakinarazpen gehien sortzen duenak (% **45**).

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2017ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 925 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%27
Mikotoxinak/biotoxinak	%21
Iruzurrak	%17
Hondakinak	%11,5
Metal astunak	%8
Produktuaren egoera higieniko txarra	%6,5
Kutsadura kimikoa	%5,5
Kutsadura fisikoa	%3,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **86,5**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **39a** eragin du. Kasu gehienetan (% **54,5a**) kakahuetea **Txinatik** zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren %**69a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **84**an. **Eskorta - hegaztiak** izan dira produktu protagonista %**47**eko kasuetan, %**79**eko kasuetan **Brasil** jatorria zelaririk. Beste salmonelei dagokienez, % **10a** **Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 82,5a eta %50ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**6a** **Salmonella typhimurium**, kasu honetan ere eskorta-hegaztiak protagonista direlarik (%60a) eta europarrak (%83,5%) kasu gehienetan. Bestalde, **Listeria** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **11a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **gazta** (% **30a**). **Listeriak** eragindako jakinarazpen guztiak **Europa** jatorria zuten (%**100a**).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**76a** dira eta medikamentuak %24a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatutak daude kasuen %**53**an eta gehienak (%**67,5a**) **asiarrak** dira.

Metal astunei buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **62a**. **Ezpatarraina** protagonista izan da %**58,5eko** kasuetan eta jatorria Espainia %90,5an.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRI A	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	195	Aflatoxinak	169(86,5%)	kakahueteak	66 (39 %)	Txina	36 (54,5%)
Kutsadura biologikoa	247	Salmonella sp.	170 (69%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	143 (84%)	eskorta - hegaztiak	67 (47%)	Brasil	53 (79%)
		<i>S.enteritidis</i>	17 (10%)	oilaskoa	14(82,5%)	Europa	7 (50%)
		<i>S.typhimurium</i>	10 (6%)	eskorta - hegaztiak	6 (60%)	Europa	5 (83,5%)
		Listeria	27 (11%)	gazta	8 (30%)	Europa	8 (100%)
Metal astunak	58	Merkurioa	36 (62%)	ezpatarraina	21(58,5%)	Espainia	19 (90,5%)
Hondakinak	107	Pestizidak	81 (76%)	barazkiak	43 (53%)	Asia	29 (67,5%)
		Botikak	19 (24%)	ez da produkturik bereizten			

ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %37a, 59 kasu, etiketan alergenok ez dituztelako adierazi izan dira.

ELIKAGAIK	Nº (%)	JATORRIA	Nº (%)
Plater prestatuak	13 (22%)	Europa	11 (84,5%)
Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak	14 (24%)	Europa	12 (86%)
Zerealak eta fruitu lehorrak	9 (15,5%)	Europa	9 (100%)
Bestelako elikagaiak	23 (39%)	Europa	15 (62%)